

PARLAMENTO VASCO
ERRROGI PROTOROKORRA
REGISTRO GENERAL2019 URR. 11
OCT. 11SARRERA/ 5081 IRTEERA/
ENTRADA SALIDA**ehbildu**

EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Rebeka Ubera Aranzeta EH Bilduko legebiltzarkide eta bozeramaileordeak, indarrean dagoen erregelamenduaren babesean Enplegu Publikoa Egonkortzeko **LEGE PROPOSAMENA** aurkezten du.

ZIOA

Administrazio publikoan indarrean den kontratazio politikak, sistema publikoaren eraginkortasun zein estaldura sozialean eta langile publikoen bizitza proiektuetan ondorio negatiboak eragiten ditu. Sistema publikoak pertsona guztien oinarrizko eskubideen berme izan behar du eta besteak beste langileen kokapen eta enplegu egitura behar bezala antolatua ez izateak, ongizate estatuan bertan eragina du.

EAEko sistema publikoa egituratzen duen arkitektura, sail guztietan, enpleguaren behin behinekotasunean oinarrituta dago: Administrazio Orokorra, Osakidetza edo Hezkuntza Saisetako behin - behinekotasuna oso adierazgarria da. Sail eta eremu bakoitzean desberdina izanik ere, batz bestekoa %35ean kokatzen da. Azken urteetan eredu hau areagotu egin da, ematen ari den belaunaldi aldaketaren ondorioz, Estatuak ezarritako arau murriztaileen bidez, berjartze tasak indarrean sartzearekin, kontratazio publikoa eremu pribatura bideratu duten neurriekin, mahai orokorraren eta negoziazio kolektiboaren ahultzearekin eta gure administrazioko langileen antolaketa eta kudeaketarako ditugun eskuduntza murrizten ondorioz.

Langile publikoen artean prekarietatea sustatzen duen behin behinekotasunari aurre egiterako garaian, indarrean dagoen markoak dituen muga eta hutsuneak oso agerian

geratu dira. Burujabetza gabeziak, berebiziko oztopoak sortzen dizkigu gure administrazioaren antolaketa, gure beharren arabera egiterako garaian.

Egoera honek, erakunde publikoen eraginkortasun eta beraiekiko izan beharreko erantzukizuna kontutan izanik, salbuespeneko erantzunak ematera behartzen gaitu. Bide honetan, plantilla estrukturalak plantilla funtzionalekin berdintzea ezinbestekoa da eta bide horretan enplegu publikoa duintzea beharrezkoa eta presazkoa da. Helburu hori lortzeko lehen urratsa sistema publikoa sendotzea da, langileen egonkortasuna oinarriztat hartuaz. Esparru publikoa zutabe sendoetan oinarritu behar da, gizarte osoaren eskubideak bermatzen dituen zerbitzuen kalitatean sakondu ahal izateko eta egiturazko politikak finkatu behar dira, langile bakoitzaren esfortzu subjektibotik haratago.

2009ko azaroaren 18an, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko Negoziazio Mahai Orokorraren baitan, akordio bat izenpetu zen, zeinetan enplegu mailan lortu beharreko helburuen baitan, egiturazko aldi baterako enplegua finkatzeko eta plantillak egonkortzeko alde orotako konpromisoak hartuko ziren, aurrerantzean egitekoak ziren Enplegu Publikoaren Eskaintzen bidez. Akordio horrek zionaren arabera, EAEko Administrazioaren eremuetan egun dagoen egiturazko aldi baterako enplegua finkatzeko prozesuetarako konpromisoa hartzea zen helburua. Lanpostu bat egiturazkoa izango da, baldin eta atxikita duen sailkapen-taldeari dagozkion funtzioak egiteko bete bada, gutxienez, bi urtetan zehar, eta beti ere lanpostuaren behin-behinekotasuna ez bada bere berezko izaeraren ondorio. Era berean, plantillak egonkortzeko Enplegu Publikoaren Eskaintzak deitzeko konpromisoa hartzen zen. Bertan, sektore bakoitzean izan beharreko behin behineko langileen ehunekoa negoziatzea zen helburua, hori kontutan hartuta beste hautaketa prozesu batzuk eginez.

Lege Proposamen honen bidez, sistema publikoaren jardunean oinarrizkoa den enpleguaren egonkortasuna bermatzeko markoa ezartzen da. Gure Funtzio Publikoaren marko araugilean sakonduz, eraginkortasuna helburu duten baliabideak eskuratzea ezinbestekoa da.

Euskal Funtzio Publikoaren -zeina mahai orokorraren adostasunik gabe etorri den- eta Euskal Enplegu Publikoaren legeen izapidetze luze eta korapilotsuen aurrean, presaz gauzatu beharreko neurriak gutxieneko berme juridikoekin garatzera dator lege proposamen hau. Dagozkion funtzioak presaz bete ondoren, Euskal Enplegu Publikoaren legearen baitan kokatuko dira lege honen ebazpen eta xedapenak.

Jaurlaritzak Legebiltzarrera bere izapidetzerako igorri duen Euskal Enplegu Publikoaren lege Proiektua, indarrean den Funtzio Publikoaren legea aldatuz, enplegu publikoaren eredu zein erronkei erantzuna ematea baino, momentu honetan ezarria dagoen administrazio publikoaren eredua egituratu eta ofizializatzea du xede. Mahai gainean ditugun arazoei ez die konponbiderik ematen.

Gure estaldura sozialerako dugun sistema publikoko enplegu ereduaren baitan ditugun erronkek, erakunde publikoetatik erantzun eraginkor eta azkarrak ematea eskatzen du. Euskal Administrazioaren baitan ematen ari den belaunaldi aldaketa kuantitatibo zein kualitatiboak, enpleguaren behin behinekotasun tasa janezin hauek gaintitzea eskatzen du.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.4 artikulua, eskumen eskusiboa ematen dio EAE-ri, “erregimen lokala eta Euskadiko eta bertako Administrazio Lokaleko funtzionarioen estatutua..(..)” arautzeko eta eraikitzeko. Ondotik uztailaren 6ko, 6/1989 Euskal Funtzio Publikoaren legeak EAEko funtzio publikoaren eredua zehaztea du helburu, berorren garapenerako erregelamenduz eta

mahai orokorraren markoan erdietsitako akordioek ondorioztatutako araudien bidez; zein hauen ondorioz eta sistema publikoko sail desberdinetako arloko mahaietan lortutako akordioen garapenen bidez. Beti ere, kontutan hartuaz Tokiko administrazioen eskuduntzak, berariazko markoa oinarri dutenak, apirilaren 7ko 2/2016 Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

Lege honek, lau artikulua eta lau xedapenetan, Euskal Administrazio publikoetan enplegua finkatzea helburua zehaztu eta berau garatzeko prozesua definitzen du.

ARTIKULATUA

1. Artikulua. Xedea

Lege honen xedea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan dagoen enpleguaren behin behinekotasuna mugatu eta enplegua egonkortzea da, berriro ez errepikatzeko neurriak hartuz.

2. Artikulua. Aplikazio eremua

Lege hau, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, bere organismo autonomo, zuzenbide pribatuko ente publiko, sozietate publiko, fundazio eta partzuergoei aplikatuko zaie.

3. Artikulua. Euskal administrazio publikoetan enplegua finkatzeko prozesua

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagozkion Enplegu Publikorako Eskaintzak onartu ondoren, kidego, eskala, espezialitate eta kategori guztietako hautaketa prozesuetarako beharrezkoak diren aurrekontu-

zuzkidurak onartuko ditu, hori izanik behin-behinekoa zena egiturazko plaza bihurtzeko baldintza.

4. Artikulua. Enplegua finkatzea bitarteko funtzionarioen ehuneko handia duten sailkapen-taldeetan.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan, txanda bat baino gehiago sartu ahal izango da, behin behineko funtzionarioen portzentaje handia duten sailkapen talde eta azpi-taldeen enplegua finkatzeko prozesuan. Txanda horietan, kolektibo horri zuzendutako froga bereziak aurreikusi ahal izango dira, beti ere eremu horretan lan esperientzia akreditatua geratzen bada.
2. Aurreko atalean adierazia, beraien enplegua finkatzeko helburu berarekin, kontratu laborala duten Administrazioko langileei ere aplikatuko zaie.

Lehenengo Xedapen Gehigarria

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak Kode gabeko lanpostuak azaleratzeko diagnostikoa egin eta mahai orokorrean onartu beharko du, egonkortu beharreko lanpostu publiko kopurua zehazteko.

Bigarren Xedapen Gehigarria

Jaurlaritzak, EAEko Administrazioko pertsonal politika garatu, enplegu egonkortasuna bultzatu eta sistema publikoa indartzeko helburuarekin, Plan Estrategiakoa onartuko du, lege hau indarrean sartu eta sei hilabeteko epean.

Hirugarren Xedapen Gehigarria

Jaurlaritzak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko Funtzionaritza eredia berregokitzeko bitartekoak garatuko ditu, lege hau indarrean sartu eta sei hilabeteko epean. Arreta berezia jarriko zaio, formakuntza etengabeari eta ebaluazio iraunkorrari, kontratazio egonkorra xede izanda.

Azken Xedapenak

Lehena

Lege honen ebazpen eta xedapenak, Euskal Enplegu Publikoaren Lege berriaren baitan kokatuko dira.

Bigarrena

Lege hau Euskal Herriko Agerkari Ofizialean argitaratzen den egunean sartuko da indarrean.

Gasteizen, 2019ko urriaren 11n



Rebeka Ubera Aranzeta

EH Bilduko legebiltzarkide eta bozeramaileordea